

PRESIDENTEA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2017ko OTSAILAREN 23an
EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Josu Artetxe
Lauren Uria
Esteban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente
Iratxe Parro

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamazazpiko otsailaren hogeita hiruan, hemeretzia direnean, Udabatz Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongiatorria eman die osoko bilkurako guztiei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2017ko urtarrilaren 19an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Nerea andreak (BILDU) adierazi du laugarren puntuan, polizia-indarrak kentzeko eskatzeari buruzko mozioari dagokionez, Gentza jaunaren azken mintzaldi bat jasotzen dela. Baina horri erantzun zion mozioan kostuei buruz hitz egiten denean, oraingo kostuak direla, hau da, 2017. urte honetan sortuko direnak. Nerea andreak eskatu du iruzkin hori aktan jaso dadila.

Idazkariak adierazi du jasoko duela.

Ez da beste adierazpenik egin; hortaz, aho batez onetsi dute akta, adierazitako aldaketekin.

2.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udala Berdinsareari (Euskadiko udalerrien sarea) atxikitze dokumentua, berdintasunari eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoa.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bozkatu eta aho batez onetsi da. *“BERDINSAREARI ATXIKITZEKO DOKUMENTUA*

Emakumeen kontrako indarkeria gizon eta emakumeen desberdintasunaren muturreko adierazpenetako bat da, eta sexua dela-eta egindako mota guztietako indarkeriazko ekintzak hartzen ditu bere barruan. Ekintza horiek ekar ditzaketen ondorioen artean ez daude soilik emakumeek jasandako kalte fisikoak; gainera, kalte sexual edo psikologikoak ere badaude. Hori dela eta, indarkeria hori errotik ateratzeko modurik onena gizon eta emakumeen berdintasunean aurrera egitea da.

Hala ere, tokiko gobernuek ondo dakigu emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa eta erakundearen arretaren hobekuntza uztartu egin behar direla, eta, hori horrela, gai horri arreta eskaintzearekin lotutako erakundeetatik ezin dela modu independente eta partzialean jokatzeko jarraitu. Jarrera irmoa hartu behar da, eta argi geratu behar da arazo honen tamainak

erakundeen erantzun integral eta koordinatua eskatzen duela, eta, bertan, udal-ekintzak funtsezko zeresana duela, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa den aldetik.

Esparru horren baitan, 2001eko urriaren 18an Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeentzako arreta hobetzeko erakunde arteko akordioa sinatu zuten arlo honetan zirikusia duten euskal erakunde guztiek. Bestetik, akordio horren Jarraipen Batzordeak beharrezkotzat jotzen du udal-esparrutik ekintzarako lankidetzak- eta protokolo-akordioak sinatzea, Akordio orokorrean xedatutakoa errealitate desberdinetara garatu, zehaztu eta egokitze. Aurreikuspen hori Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 62. artikuluan dago jasota.

Era berean, Jarraipen Batzorde horrek (besteak beste, EUDEL / Euskadiko Udalen Elkarteak osatzen du batzorde hori), 2002ko azaroaren 22an, Etxean tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako segurtasun-plana onartu zuen, eta, plan horretan, besteak beste, honako neurri hau proposatzen zen: Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Euskadiko Udalerrien Sarea osatzea. Horrek bi motatako jarduerak sustatuko ditu tokiko mailan: batetik, horrelako indarkeriari aurrea hartzea eta horren biktima direnei laguntza ematea helburu duten programak eta jarduerak ezartzea, eta, bestetik, esperientziak trukatzeko eta esparru horretan burutu beharreko jardura bateratuak koordinatzea.

EUDEL, Euskadiko Udalen Elkarteak den aldetik, Sarearen buru izateko eta Sarea kudeatzeko erakunderik egokiena delakoan, 2005eko otsailean, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak eta EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Institutuak lankidetzak-hitzarmen bat sinatu zuten, Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalerrien Sarea abian jartzeko, eta Aiarako Udala dokumentu honen bitartez atxikitzen da sare horretara.

Hauxe da Sarearen kide garen Euskadiko Udalerrien APUSTUA:

- 1. Konpromiso politiko irmoa.*
- 2. Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako ikuspuntu integrala.*
- 3. Autonomiaren sustapenera eta emakumeen jabeakuntzara bideratutako perspektiba.*
- 4. Prebentzioa lehentasun gisa daukan ikuspuntua.*
- 5. Emakumeen aniztasunaren errespetua eta balorazioa.*
- 6. Berdintasuna sustatzera eta emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei laguntza ematera bideratutako baliabideak modu bateratuan erabiltzeko borondatea.*
- 7. Erreferentzia izateko asmoa, ez soilik udalentzat, baizik eta emakumeentzat ere bai.*
- 8. Ekintzak etengabe hobetzeko beharrezana.*

Eta Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalerrien Sarean modu aktiboan parte hartzeko KONPROMISOA hartzen dugu, hauek izanik Sarearen helburuak:

- 1. Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea beteko dela bermatzea.*
- 2. Tokiko esparruan programak eta ekintzak bultzatzea, gizon eta emakumeen berdintasuna sustatzeko, desberdintasunak desagerrarazteko eta emakumeen kontrako*

indarkeriaren aurka borroka egiteko, 4/2005 Legeak ezarritako esparruaren eta funtzioen arabera.

3. Arlo horretan, esperientzien trukea ahalbidetzea eta ekintzarako irizpideak koordinatu eta bateratzea, tokiko mailan ekintzak egin behar direnerako.

4. Udalaz gaindiko esparruetan hartutako edukiak udal-errealitatean garatu, zehaztu eta egokitu dituzten lankidetzak-akordioak eta ekintzarako protokoloak sustatzea, betiere, berdintasunaren alde eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurka eginez.

5. Berdintasunaren alde eta indarkeriaren kontra hartzen diren neurri legegileei buruzko hausnarketa egitea eta aurrera eramaten ari diren politikak aztertzea.

6. Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren arloan egiten diren udal-praktika onak identifikatu eta hedatzea.”

3.- Onestea, bidezkoa bada, azaroaren 8ko erakunde-adierazpena.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, Udalbatzak aho batez onetsi du erakunde-adierazpen hau:

“Martxoaren 8a: Aiaran sustatzea emakumeak esparru sozial eta politikoan parte hartzea.

Erabakiak hartzeko guneetan emakume eta gizonen parte-hartze orekatua edozein gizarte demokratikoren aurretiko baldintza da. Emakumeek eta gizonen tokian tokiko bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunean horrelaxe baieztatzen da, eta tokiko gobernuei honako hau eskatzen zaie: beharrezko neurriak eta estrategiak hartzea, emakume eta gizonen ordezkariak eta parte-hartze orekatua sustatzeko erabakiak hartzen diren tokiko esparru guztietan.

Aiarako Udalak argi daukako emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko egunero lan egin behar dela, eta, horretarako, erakundeen, elkarten eta herritarren konpromiso sendoa behar da, berdintasunaren alde egiteko eta, bereziki, emakumeen eskubideen alde.

Hori dela eta, 2017an, emakumeen parte-hartzea Aiarako bizitza sozial eta politikoan sustatzea garrantzitsua dela azpimarratu nahi dugu; izan ere, parte-hartze hori txikiagoa da edo emakumearen rol tradizionalerako jardueretara lotuta dago.

Emakumeen parte-hartzea sustatu nahi dugu esparru guztietan, eskubide osoko herritar izan daitezten. Aintzat hartu behar da emakumeak gure udalerriko biztanleriaren % 50a direla, eta, hortaz, beraien parte-hartzeak oraingo patriarkatuak sortzen duen desberdintasun-sistemak eragindakoa baino parekideagoa eta orekatuagoa izan beharko luke.

Egoera horren JAKITUN, Aiarako Udalak emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betebeharrak onartzeaz gain, honako honetarako konpromisoa hartu du:

1. Kantsultarako eta erabakiak hartzeko organoetan emakume eta gizonen ordezkariak eta tokiko edozein organotarako izendapenak bermatzea, betiere, sexu batek ere ez dezan izan %40tik beherako ordezkariak (emakumeen parte-hartzea sustatzeko egitura espezifikoa izan ezik).
2. Zenbait mekanismo ezartzea, hautatutako emakume ordezkariak eskumen-banaketa edo funtzio-esleipen estereotipatuaren edo bestelako diskriminazio- edo jazarpen-moduen eraginpean izatea eragozteko.

3. *Parte-hartzea eta bizitza pertsonala eta familiako bizitza uztartzea ahalbidetzen duten neurriak hartzea, ordutegien eta lan-metodoen eta herritarrei laguntzeko sistemen bidez.*
4. *Sexuaren arabera bereizitako estatistikak jaso, bideratu eta publiko egitea, itxura sistematikoa emateko, tokiko esparruan emakumeen parte-hartzearen bilakaeraren jarraipena egin eta analisi horren araberako neurri zuzentzaileak ezartzeko.*
5. *Emakumeen parte-hartzea indartuko duten espazioak eta sareak sendotzea, hala nola emakumeen etxeak, jabekuntza-eskolak eta/edo udal-berdintasuneko kontseiluak, eta, besteak beste, emakume hautetsientzako Virginia Woolf Basqueskola jabekuntza-eskolako programetan parte har dezaten ahalbidetzea.*
6. *Udalerriko emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoaren sustapena ahalbidetzen duten ekintza espezifikoak ezartzea modu inklusiboan, batez ere, gutxiengo taldeko kideak diren emakumeei dagokienez.*
7. *Emakumeek Aiaran eduki duten eta duten agerpena eta ekarpenak ezagutzera ematen eta sustatzen jarraitzea.*
8. *Udalerrian gauzatzen diren parte hartzeko prozesuek genero-ikuspegia kontuan hartzen dutela bermatzea. Horrela, herritarren parte-hartzea parekideagoa izango da, batez ere, jaietan eta ospakizunetan.*
9. *Alor horretan ematen diren pausoak koordinatzeaz eta jarraitzeaz gain, Aiarako gizarte-eragileekin biltzea, ekarpen berriak egiteko, egindakoa aztertzeke eta hartutako erabakiak sustatzeko.*
10. *Udaletako berdintasun-sailetan eta gainerako udal-sailetan neurri horiek gauzatu ahal izateko baliabide nahikoak jartzea.*
11. *Konpromiso hori herritarrei helaraztea Saraube udal-aldizkarian argitaratuz; hala, hori bete dezaten eskatu ahal izango diete.*

Amaitzeko, eta adierazitakoa aintzat hartuta, Aiarako herritarrei eskatu nahi diegu Aiara Berdintasunaren Alde elkarteak antolatutako ekintzetan parte hartzeko martxoaren 8an.”

Gentza jaunak (EAJ-PNV) guztiei luzatu die martxoaren 8aren inguruan antolatuko diren ekintza guztietan parte hartzeko gonbita.

4. Hasiera batean onestea, bidezkoa bada, Luliaondoko 3. poligonoko 1.198 eta 1.364 katastro-lursailen zati bat aldeztu aurretik okupatzeko hirigintza-hitzarmena.

Josu jaunak (BILDU) adierazi du gai hori informazio-batzorde batean landu zela, baina ez zela partaidetza teknikorik egon. Eskatzen dute aholkularitza teknikoaren eta hitzarmenaren zirriborroa idatzi zuen talde teknikoaren ordezkari bat egon dadila.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du maila teknikoko adierazpenak hitzarmenean jasota daudela, eta, gainera, lursailen titularrak bere oniritzia adierazi duela.

Josu jaunak (BILDU) adierazi du batzordean gai hori gaineratik landu zela. Ez daude hitzarmenaren aurka, baina eskatzen du batzordean beharrezkoak diren azalpen teknikoekin lan egiteko.

Gentza jaunak erantzun dio talde teknikoari eskatu ahal zaiola batzorde batera joan dadila beharrezkotzat jotzekotan, baina hasierako onespeneraren ondoren informaziorako izapide bat dago eta epe horretan nahi duenak jar ditzake alegazioak. Bileran bat antolatuko da HAPOa idatzi zuen talde teknikoarekin, hasierako onespenerako dokumentuak lantzen hasteko; eta orduan eskatu ahalko diegu hitzarmenaren alderdi teknikoak azaltzeko. Horrenbestez, hitzarmena bozkatu da.

Josu jaunak adierazi du bere taldearen iritziz jarduteko modua ez dela egokia izan. Batzordean azalpen tekniko eta juridikoak eskatzen dituzte, haiek ez baitira adituak gai horietan.

Gentza jaunak erantzun du teknikariei deialdia luzatuko zaiela, beharrezkoak diren azalpenak eman ditzaten. Halaber, EH BILDURI eskatu dio, ahal bada, dituzten zalantzak igortzeko, teknikariek azalpenak emateko behar duten dokumentazioa ekar dezaten.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da emaitza:

Aldeko botoak:7 (5 EAJ-PNVk eta 2 ABk)

Abstentzioak:4 (EH BILDUK)

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Luiaondoko 3. poligonoko 1.198 eta 1.364 katastro-lursailak aldeztatik okupatzeko hirigintza-hitzarmena, Aiarako Udalaren eta M^a D. I. I. andrearen (lursailen jabea) artean sinatutakoa.

AINZAT HARTU DA.- Hitzarmen horrek bat egiten duela Udalbatza Osoak jabearekin egindako negoziazioekin.

AINZAT HARTU DA.- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, eta Ingurumena Informazio Batzordeak 2017ko otsailaren 14an emandako aldeko irizpena.

AINZAT HARTU DA.- Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarria.

Udalbatza Osoak, gehiengo batez, **HONAKO HAU EBATZI DU:**

Lehenengoa.- Hasiera batean onestea, bidezkoa bada, Luiaondoko 3. poligonoko 1.198 eta 1.364 katastro-lursailen zati bat aldeztatik okupatzeko hirigintza-hitzarmena.

Bigarrena.- Aipatutako hitzarmena jendaurrean ikusgai jartzea. Horretarako, osorik argitaratuko da ALHAOn, argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita hogeita egun balioduneko epean, edozein interesdunek bidezkotzat jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan.

Hirugarrena.- Jendaurrean ikusgai dagoen epean ez bada inolako alegaziorik aurkeztu, hitzarmena behin betiko onetsita geldituko dela.

5.- Administrazio-espeditarearen ebazpena, Leziaga Construcciones SL enpresari Etxaurren Ikastola konpontzeko eta aldatzeko obren exekuzioan atzeratzeagatik dagokion zigorrari buruzkoa.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du espeditarearen abiarazi zela pleguek ezartzen zutenaren arabera, eta alegaziorik egin ez denez, bidezkoa dela espeditare hori ebaztea, dagokion zehapenak ezarrita.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2016ko abenduaren 22ko Udalbatzaren erabakia. Horren bidez, administrazio-espeditareari hasiera eman zitzaion, Leziaga Construcciones SL enpresari Etxaurren

Ikastola konpontzeko eta aldatzeko obren exekuzioan atzeratzeagatik (59 egun) dagokion zigorra jartzeko.

AINTZAT HARTU DA.- Erabaki hori enpresari jakinarazi zitzaiola, eta epe horretan ez duela alegaziorik edo dokumentaziorik aurkeztu.

AINTZAT HARTU DA.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen azaroaren 14ko Legegintzako Errege Dekretuaren 212. artikuluan xedatutakoa (100. artikuluari dagokionez), eta obren esleipena oinarritu den klausula ekonomiko eta administratiboaren XII. klausulan xedatutakoa.

Udalbatzak, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Frogatutzat jotzea Legiaga Construcciones SL enpresaren 59 eguneko atzerapena Etxaurren Ikastola konpontzeko eta aldatzeko obren exekuzioan. Ondorioz, enpresari 1.927 euroko zigorra ezarri zaio.

Bigarrena.- Enpresari eskatzea HILABETEKO epean, erabakia jasotzen duen hurrengo egunetik zenbatzen hasita, zenbateko hori ordaintzea Udalaren kontu-zenbaki honetan: ES23 2095 3258 27 1095224464 (Kutxabank). Bestetik, ohartaraztea zenbateko hori epe horretan ordaintzen ez badu, premia ordainarazteko bideari ekingo zaiola, % 20ko errekararekin eta berandutza-interesak sortuko dituela.

Hirugarrena.- Jakinaraztea Leizaga Construcciones SL enpresari ebazpen honen aurka berrezartze-helegitea aurkeztu ahal izango duela, Udalaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita; bestela, zuzenean aurkez dezake administrazioarekiko auzi-helegitea Administrazioarekiko Auzien Vitoria-Gasteizko Epaitegiaren aurrean.

6.- E. C. B. andrearen aurka abiarazitako administrazio-espeditatearen ebazpena, Aiarako 4. poligonoko 723 eta 726 katastro-lursailak berreskuratzeari buruzkoa.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Azaroaren 7ko 499/2016 Dekretua; horren bidez, Aiarako 4. poligonoko 723 eta 726 katastro-lursailak (titularra Udala da) ofizioz berreskuratzeko espeditatea abiarazten da, eraikitako legez kanpoko hesia kentze aldera eta abeltzaintzarako erabiltzea galarazteko.

HONAKO HAU GERTATU DA.- E. C. B. andreak, emandako epean, lursail horietako abereen titular gisa, eta, hortaz, jabari publikoko ondasunaren usurpatzaile gisa, ez du alegaziorik aurkeztu.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Okupatutako lursailak jabari eta erabilera publikoko ondasunak direla, Udalarenak direla eta esparru libreetara zuzendutakoak. Udalak ez dio baimenik eman hesi bat eraikitzeko, ezta abeltzaintza-jarduerarik hasteko ere; gainera, jarduera hori ez dago baimenduta mota horretako lurretan.

AINTZAT HARTU DA.- ekainaren 13ko 1372/1086 Errege Dekretuak onetsitako Toki Erakundeen Ondasunen Araudiko 3., 9., 44., 46., 70. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa.

Eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 75. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa.

AINTZAT HARTU DA.- Tokiko Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 4 d), 22.2 j), 68. eta 82. artikuluetan xedatutakoa.

Korporazioak 2017ko otsailaren 23an egindako osoko bilkuran, aho batez **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Aiarako 4. poligonoko 723 eta 726 katastro-lursailak ofizioz berreskuratzea; lursail horiek Udalaren titulartasunekoak dira eta jabari eta erabilera publikokoak dira. Bestetik, E. C. B.andreari eskatzea, 15 eguneko epean, jakinarazpena jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita, lursail horiek libre eta irekita uztea; bertan eraikitako hesia kentzeko gastuak berak ordaindu beharko ditu, eta hondakinak kudeatu beharko ditu. Era berean, abeltzaintza-jarduera edo bestelako erabilera pribatuak eten beharko ditu, eta abereak lursail horietatik atera beharko ditu.

Bestalde, ohartaraztea emandako epean legez kanpoko okupazioari amaierarik ematen ez badio eskatutako baldintzetan, Udalak ofizioz berreskuratuko dituela lursail horiek; alegia, alkatea izango da jabea eta subsidiarikoki hesia kenduko du, hondakinak kudeatuko ditu eta abereak kenduko ditu. Behar izanez gero, konfiskatu egingo ditu. Hori guztia, interesdunaren ondarearekin ordainduko da, eta, behar izanez gero, gastuen behin-behineko likidaziora joko da, udaleko zerbitzu teknikoak azaroaren 21ean idatziko txostenean arabera, sortutako gastu guztiak bilduko dira premiazko bidetik, % 20ko errekararekin.

Bigarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, eta adieraztea erabaki honen aurka Udal honen aurrean eta hilabeteko epean birjarpenezko errekurtsora jar dezakeela, edo zuzenean administrazioarekiko auzibide-errekurtsora jo dezakeela Gasteizko Administrazio Auzibideetarako Epaitegiaren aurrean bi hilabeteko epean.

7. Onestea, bidezkoa bada, Kantauriko Urkidetzarekin egindako kudeaketa agintzeko hitzarmena, behe-sareak kudeatzeko, mantentzeko, ustiatzeko eta berritzeko, bai eta tarifen ordainketa eta ezarpena kudeatzeko ere.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du Partzuergoari helarazi dizkiola informazio-batzordean egindako eta Hitzarmenean jasotako adierazpenak.

Esteban jaunak (BILDU) esan du bertan adierazitako guztia jaso dela.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da emaitza:

Aldeko botoak:9 (4 EAJ-PNVk eta 4 BILDUK)

Aurkako botoak:2 (ABk)

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Egun, Aiarako Udalak kudeatzen duela bere baliabideekin Murgako industrialdeko beheko urak hornitzeko zerbitzua eta saneamendua.

IKUSI DA.- Udal honek egokitzen jotzen duela kudeaketa-eredu berri bat egitea, hainbat helbururekin, ez soilik ekonomiko-teknikoak, baita ingurumen- eta gizarte-arlokoak ere.

IKUSI DA.- Ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 16. artikulua. Horren bidez, zehazten da egoera onean dagoen uraren behar besteko hornikuntza bermatu behar dela, ur horretaz modu iraunkorrean baliatuta; horretarako, baliabide hidrikoak epe luzerako babestea hartuko da oinarri. Bestetik, aintzat hartu da babes hori hobeto egiten dela arroa ikusten bada; izan ere, baliabideak ez dira hasi ta amaitzen udalerriko muga administratiboetan.

AINTZAT HARTU DA.- Helburu hori errazago beteko duela goiko uren sarea kudeatzen duen erakundeak, baita ziklo osoa ere eskualdeko erakunde batzuetan, hau da, Kantauriko Urkideztzak.

AINTZAT HARTU DA.- udal honen ustez, zerbitzua emateko modurik egokiena dela Kantauriko Urkideztzari kudeaketa agintzea. Udalak titulartasuna eta eskumenak gordeko ditu.

AINTZAT HARTU DA.- Kantauriko Urkideztza eskubide publikoko erakunde bat dela, elkarte izaerakoa eta boluntarioa. Izaera juridiko propioa du eta helburuak betetzeko jarduteko gaitasuna ere bai. Beste hainbat eskumenen artean, estatutuek zehaztutako zerbitzu publikoak ustiatu ahaliko ditu, baita ondoren bere gain hartutakoak ere.

AINTZAT HARTU DA.- Urkideztzak toki-erakundeak ordeztzen dituela bere helburuak lortze aldera; eta kide diren erakundeek euren eskumenak erabiltzen dituzte erakunde horren bitartez. Eskumena, betiere, Urkideztzarena izango da.

AINTZAT HARTU DA.- Amurrio, Artziniega, Aiara, Laudio, Okondo eta Arabako Foru Aldundia, indarrean dagoen legeriak ematen dieten eskumenaz baliatuta, 1999ko ekainaren 2an batu zirela Kantauriko Urkideztzara, ur-sareko zerbitzuak eta azpiegiturak modu bateratuan ezartzeko eta ustiatzeko. Helburua da ur-hornidura eta lehen mailako sareen azpiegiturak zehaztea eta ustiatzea, eta dagozkien zerbitzuak ematea. Hori guztia, baldintza egokietan eta indarrean dagoen araudiak dioenari jarraikiz (Urkideztzako Estatutueto 6. artikulua).

AINTZAT HARTU DA.- Estatutueto 6. artikulua horrek zehazten duen bezala, Kantauriko Urkideztzak bere xedea zabaldu dezakeela uraren zikloko beste fase batzuetara, erakunde interesdunen adostasunarekin eta alde zuzenarekin hitzartuta.

AINTZAT HARTU DA.- Erabaki horrek prozedura bifasiko bat zehazten duela. Hala, Kudeaketa Agindua (1. gertaera) lehen fasean edo behin-behineko fasean, hitzarmenaren I. eranskinean jasotzen den bezala (Kantauriko Urkideztzaren Jarraiera Planaren 01/17 txostena, Aiaraldean hiri-uren ziklo osoaren kudeaketa ezartzeko: Aiarako Udalaren esparrua), Aiarako Udalak Urkideztzaren esku uzten du Murgako industrialdeko bigarren mailako edo beheko uren hornidura- eta saneamendu-zerbitzuaren kudeaketa osoa.

Urkideztzak Udaleko Bigarren Mailako Sarea kudeatzeko, ustiatzeko eta mantentzeko beharrak bere gain hartzen ditu. Era berean, sei hilabeteko epean Bigarren Mailako edo Beheko Uren Berritze Plan bat idatzi beharko du; bertan islatu beharko dira Aiarako Udalak bere gain hartu beharreko inbertsioak eta urteko euri-programak. Aiarako Udala instalazio guztien jabe eta titularrak denez, bere kargura izango dira hobekuntzak eta finantzaketa; era berean, Urkideztzaren

araudia onartu beharko du eta tasak arautzen dituen zerga-araudia aplikatu beharko du, Urkideztzak egindako hornidura- eta saneamendu-zerbitzuak emateagatik.

Bigarren fasean, behin betiko fasean, Aiarako Udalak Berritze Plana onetsi beharko du, eta Kantauriko Urkideztari eginiko kudeaketa-agindua (bigarren mailako edo behe-uren sarea hornitzeko eta saneatzeko, eta Murgako industrialdeko abonatuaren kudeaketa eta bilketa) behin betiko onesteko asmoa azaldu beharko du.

AINTZAT HARTU DA.- Ekainaren 23ko 1/2006 Uraren Euskal Legean zehaztutakoa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 55. artikuluan zehaztutakoa, Sektore Publikoko Araudi Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 8. artikuluan eta horrekin bat datozenetan zehaztutakoa, Kantauriko Urkideztaren funtzionamendua arautzen duten Estatutuetan zehaztutakoa, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 104. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutakoa.

AINTZAT HARTU DA.- Toki Araubideen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2h) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, korporaziokideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa beharko dela funtzioak edo jarduerak beste herri-administrazio batzuegan eskuordetzeko.

AINTZAT HARTU DA.- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, eta Ingurumena Informazio Batzordeak 2017ko otsailaren 14an emandako aldeko irizpena.

Udalbatza Osoak, gehiengo osoarekin, honako hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Hasierako konpromisoa onestea, Kantauriko Urkideztari eskatzeko bigarren mailako edo beheko uren sareak kudeatu, mantendu, ustiatu eta ordezkatzeko. Bestetik, abonatuak kudeatzeko eta Murgako industrialdeko tarifak ezartzea, kudeaketa-aginduaren bitartez.

Horretarako, Kudeaketa Aginduaren Hitzarmena onestea, erabaki honen I. eranskina gisa erantsi dena.

Bigarrena.- Martxan jartzeko adostutako ibilbide estrategikoa onestea (erabaki honen II. eranskin gisa erantsi da), baita Jarduera Plana eta Murgako industrialdeko sareen inbentarioa ere.

Hirugarrena.- Kantauriko Urkideztari jakinaraztea Udalak azpiegiturak berrezartzeko plana landu eta aztertu ondoren, eta beharrezko finantzaketa eta periodifikazioa egin ondoren, Udalak konpromisoa hartuko duela behin betiko agindua emateko erakunde horri, zerbitzu horiek kudeatzeko.

Laugarrena.- Alkateari baimena ematea kudeaketa-agindu honetan beharrezkoak diren agiriak sinatzeko.

8. EH BILDU taldeak aurkeztutako mozioa, Armentia-2ko gas-putzuari buruzkoa.

Nerea andreak (EH BILDU) azaldu du proiektu bat dagoela Armentia-2ko putzua esploratzeko, bertan gasa dagoen ikusteko. Esplorazio-teknika horiek ingurumen-arloko ondorio asko dituzte; eta Gasteizko Udaleko eta Aldundiko adituek beren iritzia adierazi dute jada auzi horri dagokionez. Oraingoz, bide konbentzionalak erabiliko direla esan dute, eta ez haustura hidraulikoa. Hala ere, bide konbentzional horiek ere ez daude kalteetatik libre. Gainera, espedientearen izapidetzean era laburtu bat hautatu da, hau da, publizitate-berme guztiak

gabe.Hori dela eta, eskatzen dute Udalak SHS Ari helarazteko gas-esplorazioan atzera egin eta energia-bide alternatibo eta berriztagarrien alde egiteko eskaera.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Euskadin kontsumitzen den gas guztia gasbideen bidez iristen dela Aljeria, Nigeria eta Perutik, edo itsasontzien bidez.Euskadik gas natural asko kontsumitzen du eta ez du ezer ekoizten; hortaz, Eusko Jaurlaritzatik energia berriztagarriak ezartzea sustatzen ari bada ere, zaila da energia mota horien bidez behar denaren ekoizpenaren % 100 lortzea. Izan ere, gasaren eskaera estaltzeko 14.000 haize-sorgailu edo eguzki-plaken milaka hektarea jarri behar lirateke.Hortaz, energia berriztagarriekin energiaren sorkuntza erabat lortzeko aukera dagoen arte, ingurumenari dagokionez, gas naturala erabiltzea da aukerarik jasagarriena; izan ere, errekontzako hidrokarburorik garbiena da eta atmosferara CO2 gutxien isurtzen duena.

Gentza jaunak, halaber, adierazi du Armentia-leko zundaketa zulatu zenean, gasa ekoiztu zuela bi urtean zehar, 350 metro bakarrik zulatu bazen ere.Kokalekua ezin hobea da; degradatutako eremu batean dago; hortaz, obra zibil txikia behar du, ez dira sarbide berriak eraiki behar, ura hoditeria bidez hornitu daiteke eta gasbiderako lotura berehala egin daiteke dagoenarekin.Halaber, adierazi du Shesaren proiektuak bermatzen duela Subijanako akuiferoak ez duela eraginik jasoko. Gainera, zenbait puntu gakotatik urak zaintzeko sare bat proposatu da.

Amaitzeko, Gentza jaunak adierazi du bere taldeak ulertzen duela aukerak aztertu behar direla, zer baliabide aurkitu daitezkeen ikusteko; betiere, ingurumeneko gidalerroak errespetatuz.

Nerea andreak (BILDU) esan du ezin dela defendatu jarduketa honen interes bakarra esplorazioa dela; izan ere, argi dago ondoren ustiatuko dela.Jakina da Estatu Batuetako bi enpresak interesa erakutsi dutela.Bestalde, ingurumeneko auziak ez dira ebatzi; hala adierazi dute hainbat elkartek eta Gasteizko Udaleko eta Aldundiko teknikariek.Egin behar dena, adierazi du Nerea andreak, energia berriztagarrien aldeko apustu irmoa da.Gasa ateratzeko putzu asko ireki behar dira, eta horrek, zalantzarik gabe, kalteak ekarriko dizkio ingurumenari.Ez da ulertzen EAJren mozioaren 2. puntuan argi izatea ingurumeneko betebeharrak betetzen ari direla.Hori defendatzea eta energia beharregatik Garoñako Zentrala berriro irekitzea ahalbidetzea baliokide dira.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du bere taldea ados dagoela energia berriztagarriak erabiltzearekin, baina Euskadik behar duen kopurua ekoiztu arte, beste irtenbideak bilatu behar dira.Bestalde, adierazi du Garoñako zentralarekiko alderaketa lekuz kanpo dagoela.

Josu jaunak (BILDU) adierazi du bere taldeak energia berriztagarrien aldeko apustua egin nahi duela.Esan du jendea kezkatuta dagoela Armentia-ko zulaketen auziarengatik. Eskatzen dute administrazioa gardena izan dadila, eta batez ere, energia-ereduak alda daitezela.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du bere taldeak ere argi duela bere jarrera Garoñako zentralari dagokionez. Eta energia-ereduaren inguruan, argi dago oraingoz gasa erabiltzen jarraitu behar dela, energia sorkuntzaren % 100 ez baita berriztagarria, eta hori gertatu arte, beste aukera batzuk erabili beharko dira.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK:4 BILDUK

AURKAKO BOTOAK:5 EAJ-PNVk

ABSTENTZIOAK:2 ABk

Beraz, mozioa ezetsi egin da.

9. EAJ/PNV taldeak eginiko zuzenketa, EH BILDU taldeak aurkeztutako mozioari, Armentia-2ko gas-putzuari buruzkoa.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

ALDEKO BOTOAK:5 EAJ-PNVk
AURKAKO BOTOAK:4 EH BILDUK
ABSTENTZIOAK:2 ABk

Horrenbestez, mozioaren zuzenketa onetsi da; hau da zuzenketaren testua:

"EAJ-PNVk EH BILDUren MOZIOARI EGINDAKO ZUZENKETA, ARMENTIA-2 GAS-PUTZUAREN HARIRA

Gentza Alamillo Udaeta jaunak, Aiarako Udaleko EAJ-PNV udal-taldeko bozeramaileak, indarrean dagoen araudiaren babesean, EH BILDUren mozioari ZUZENKETA hau aurkezten dio, Armentia-2 gas-putzuaren harira.

JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun, energia-beharrianak hiru multzo handitan banatu daitezke: energia elektrikoa, energia termikoa eta garraioa. Horietako bakoitzak pisu jakin bat dauka eskaeran, eta beroarena da nagusia.

Petrolioaren deribatuei nahiz gasari dagokienez mendekotasuna amaitu eta, horrela, energia guztiz berdea lortzeko ibilbidea hasita, erronka potoloei aurre egin behar diegu gure gizartean karbonizazioa desagertu arazi ahal izateko, gure ongizatea eta garapen ekonomikoa arriskuan jarri gabe.

Euskadiko Hidrokarburoen Sozietatea, SA (Shesa) enpresa publikoaren eskumena da, besteak beste, esplorazioa sustatzea, betiere gure giza eta ingurumen-balioak ahalik eta gehien errespetatuz eta geure baliabideak aprobetxatuz; bada, horrela, kanpotik datorren energiarekiko dugun mendekotasuna murrizteaz gain, ingurumen-eragina ere txikiagoa izango litzateke. Izan ere, aipatutako lehengaien garraioa nahiz horrekin lotutako prozesuak desagertu egingo lirateke.

Duela hamarkada asko ikusi genuen lur azpian gasa dagoela, eta aurretik egindako lanetan ez da inolako ingurumen-arazorik planteatu. Teknika hobetuz joan da eta, ondorioz, posible da esplorazio-proiektu batek gure ingurumen-ondarea zainduko duela bermatzea, baita lurpeak zer eskaintzen digun zehatz-mehatz jakitea ere.

Gobernu ororen ardura da zer-nolako baliabideak dituen jakitea. Hori dela eta, Armentia-2 esploratzeko proiektuan putzu bat besterik ez dago, eta informazioa lortzea du helburu nagusia.

Hori dela eta, EAJ-PNV udal-taldeak honako ZUZENKETA hau aurkezten du:

1. Aiarako Udalak Shesa enpresari eskatuko dio lan egiten jarraitu dezala helburu hauek lortzeko: Euskadiren energia-mendekotasuna ahalik eta gehien murriztea, energia-burujabetza sustatzea, ingurumen-eragin globalak murriztea, tokiko lanpostuak sortzea eta kanpo-balantza hobetzea.

2. *Aiarako Udalak Shesa enpresari eskatuko dio lan guztiek ahalik eta kontrol-, gardentasun- eta zehaztasun-maila handiena izan dezatela, baita behar diren aldeko ingurumen-izapideak ere.*

3. *Aiarako Udalak mozio honetan adostutako guztiaren berri emango die Eusko Jaurlaritzari, Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrari, Foru Aldundiari eta Arabako Batzar Nagusiei."*

- **Eguneko aztergaien zerrendako gainerako puntuekin jarraitu aurretik, alkate jaunak proposatu du puntu bat aztergaien zerrendatik kanpopremiaz sartzea: Itelazpirekin sinatzeko hitzarmena, Zuazako igorpen-zentroaren lursailen lagapen-eremua zabaltzeko, teknologia berrietara eta segurtasun-araudietara egokitzeko.**

Premia bozkatu da, eguneko aztergaien zerrendan sartu ahal izateko, eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute. Hortaz, hurrengo gaia eztabaidatu eta bozkatzera igaro dira.

10.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Itelazpi SA enpresaren arteko lankidetzaz-hitzarmena aldatzea, Zuaza Zentroko komunikazio-zerbitzuak emateko eta hobetzeko.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du gai horri buruz Hirigintzako Batzordean hitz egin zutela. Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bozketa egin da eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2010eko martxoaren 1ean Aiarako Udalak lankidetzaz-hitzarmena sinatu zuela ITELAZPI SA enpresarekin, komunikazio-zerbitzua emateko eta hobetzeko. Horren bidez, Udalak enpresa horren eskura jarri zituen Zuazako Komunikazio Zentroaren lursailak (1 m² inguru); lursail horien erabilera eta ustiapena E. V. O. jaunak eman zion udal honi.

IKUSI DA.- Berriki, Itelazpi SA enpresak adierazi duela zerbitzua hobetzeko eta instalazioak segurtasun-araudietara egokitzeko helburuarekin, Zuaza Komunikazio Zentroan hainbat lan egin nahi dituela. Horretarako, ezinbestekoa da lagapen-esparrua handitzea 12,5 m²-ra arte, gutxi gorabehera.

IKUSI DA.- Aiarako Udalak 2017ko otsailaren 1ean erabaki zuela E. V. O. jaunarekin 2010eko otsailaren 26an sinatutako konpromiso-akta aldatzea. Hala, Aiarako 2. poligonoko 335-B lursailaren lurzatia, bere erabilera eta ustiapena lagatakoa, 12,5 m²-koa izango da. Aldaketa horrekin Zuazako Komunikazio Zentroan aldaketak egin ahal izango dituzte, segurtasun-araudiak eta LTDaren zerbitzuak eskatzen dituztenak.

Udalbatzak, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Aiarako Udalaren eta ITELAZPI SA enpresaren artean sinatutako lankidetzaz-hitzarmena aldatzea, Zuaza Zentroko komunikazio-zerbitzuak emateko eta hobetzeko.

Horretarako, II. eranskina gehituko da, eta bertan azalduko dira formalizatzeko proposatutako aldaketak.

Bigarrena.- Era berean, III. eranskin gisa gehitu dela Itelazpi SA enpresak 2016ko maiatzean egindako planoak. Bertan jasotzen dira Komunikazio Zentroan egin beharreko aldaketak.

Hirugarrena.- Alkateari baimena ematea aldaketa hau formalizatzeko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko.

Laugarrena.- Akordio honen berri ematea ITELAZPI SA enpresari eta jakinaraztea ebazpen honen aurka berrezartze-helegitea aurkeztu ahal izango duela, Udalaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita; bestela, zuzenean aurkez dezake administrazioarekiko auzi-helegitea Administrazioarekiko Auzien Vitoria-Gasteizko Epaitegiaren aurrean.

11.- Alkatetza Dekretu hauen berri ematea:

- **13/17 erref.- Izoriako Administrazio Batza.-** Hondakinak kudeatzegatik jarritako bermea itzultzea, eta “kaleak egokitzeko” obrarako lizentziaren espedientea amaitzea.
- **14/17 erref.: RGO.-** Hondakinak kudeatzegatik jarritako bermea itzultzea, eta “etxolaren teilatua aldatzea eta garajea atea jartzea” obrarako lizentziaren espedientea amaitzea.
- **15/17 erref.: JMUSM.-** Hondakinak kudeatzegatik jarritako bermea itzultzea, eta “garajea handitzea eta tresna-biltegia eraikitzea” obrarako lizentziaren espedientea amaitzea
- **16/17 erref.: EBA, SL.-** Administrazio-espedientea ebazten ari da, Luiaondoko erabilera anitzeko eraikineko birgaitze-obran hautemandako akatsak konpontzeko.
- **17/17 erref. Olabezarko Administrazio Batzarra.-** Dokumentu gehiago eskatzea, Garai auzotik Olabezartik Cadenara doan bideko ezpona ezegonkorra hobetzeko harri-lubeta bat jartzeko obrarako udal-lizentziaren espedienteari eta hondakinen kudeaketari buruz.
- **18/17 erref.: Axpo Iberia SL.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatik tasa, 2016ko laugarren hiruilekoa (kontzeptua: elektrizitatea).
- **19/17 erref.: JJRM.-** Biztanleen erroldan ofiziozko baja emateko espedientea abiaraztea.
- **20/17 erref.: JCG.-** Hondakinak kudeatzegatik jarritako bermea itzultzea, eta “Retes de Llanteno etxebizitza bateko teilatua konpontzeko” obrarako lizentziaren espedientea amaitzea
- **21/17 erref.: Berganza, SC.-** Hondakinak kudeatzeagatik jarritako bermea itzultzea, eta “Kexaako etxola bateko estalkia konpontzea” obrarako lizentziaren espedientea amaitzea.
- **22/17 erref.: JMLV.-** Dokumentu gehiago eskatzea, Beotegiko etxebizitza bateko teilatua aldatzeko” obrarako lizentziari eta hondakinen kudeaketaren espedienteari buruz.
- **23/17 erref.: JASG.-** Dokumentu gehiago eskatzea, Retes de Llanteno familia bakarreko etxebizitza eraikitze obrarako lizentziaren espedientearen inguruan.
- **24/17 erref.: JMJA.-** Udal-lizentzia eta obrak hasteko baimena ematea Olabezarko baserri bateko fatxadan zulo bat irekitzeko eta teilatua konpontzeko.
- **25/17 erref.- Onestea F/2016/15 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **26/17 erref.- 2017an elkarreki emango zaizkien diru-laguntzak jasotzeko oinarriak eta deialdia onestea.**
- **27/17 erref.-** Luiaondoko botika-kutxako obraren 1. ziurtagiria onestea- **LEZIAGA 1995 CONSTRUCCIONES SL.**
- **28/17 erref.: ASC.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Kexaako eraikineko fatxadan dagoen zuloa handitzeko.

- **29/17 erref.: BRA.-** Dokumentu gehiago eskatzea, Arespalditzako eraikin baten merkataritza-erabileratik etxebizitza-erabilerara aldatzeko egin beharko obrarako lizentziaren espedienteari buruz.
- **30/17 erref.: Orange Spagne SAU.-** Lurra okupatzeagatiko tasaren likidazioa (2016ko laugarren hiruhilekoa).
- **31/17 erref.: Euskaraz Kooperatiba Elkartea-AEK.-** Kontratista hautatzea, Aiarako "Berbalagun-Gurasolagun" programaren dinamizazio-zerbitzua kontratatzeko.
- **32/17 erref.:** Diru-laguntza ematea 2015-2016 ikasturtean euskara ikasteagatik.
- **33/17 erref.: MZPL.-** % 25eko hobaria ematea Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Udal Zergaren kuotan, familia ugaria izatea egiaztatzeagatik.
- **34/17 erref.-** Onestea F/2016/16 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.
- **35/17 erref.: MPOO.-** Udaleko okupazio-lizentzia ematea Izoriako baserri bati, bertan egindako birgaitze-lanak gauzatu eta gero.
- **36/17 erref.: AAGA.-** Llanenton landa-finkak banantzeko eta multzokatzeko udal-lizentzia ematea.
- **37/17 erref.: Sojoko Administrazio Batza.-** Administrazio-espeditentea amaitutzat ematea, "Sojoko Ubierte auzoko errepideko horma indartzeko" obrarako udal-lizentziari buruzkoa.
- **38/17 erref.: GOT.-** Epea amaitzea, informazio publiko administrazio-espeditentea eskuratzeko eskaerari dagokionez.
- **39/17 erref.: MTA I eta MERC.-** Alegazioak aurkezteko epea irekitzea, informazio publikoko administrazio-espeditentea eskuratzeari dagokionez.**40/17 erref.: RVM.-** LMBren izenean espeditentek aztertzeko baimena ematea.
- **41/17 erref.: Naturgas Energía Distribución SAU.-** Abala itzultzea, eraikitzeetik eta botatzeetik sortutako hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko jarritakoa.
- **42/17 erref.: Viesgo Energia SL -** Lurzorua okupatzeagatiko tasa likidatzea (2016ko 4. hiruhilekoa), kontzeptua: argindarra eta gasa.
- **43/17 erref.: Goiener S. Coop -** Lurzorua okupatzeagatiko tasa likidatzea (2016ko 4. hiruhilekoa), kontzeptua: elektrizitatea.
- **44/17 erref.: GOT.-** Salaketaren kopia ez ematea, kaltetutako hirigintza-antolakuntza berrezartzeko administrazio-espeditenteari buruzkoa.
- **45/17 erref.: AIARA GURE ESKU DAGO.-** Eskatutako informazioa ematea, diktadura amaitu zenetik gaur egun arte izan diren alkate eta zinegotziei buruzkoa.
- **46/17 erref.: AHC.-** Obrarako udal-lizentzia ematea Etxegoienen familia bakarreko etxebizitza eraikitzeke, eta dokumentu gehiago eskatzea, obrak hasteko baimena eman ahal izateko.
- **47/17 erref.: AHC.-** Bermea eskatzea, "Etxegoienen familia bakarreko etxebizitza bat eraikitzeke" obren hondakinak kudeatzeko.
- **48/17 erref.: AIARAKO SARAUBE HOCKEY KLUBA.-** Justifikatu gabeko zenbatekoa itzultzea (2015eko diru-laguntza).
- **49/17 erref.: ASOCIACIÓN CULTURAL LA ESCUELA-ESKOLA.-** 2015eko diru-laguntza itzultzeko prozedura amaitzeko dekretua.
- **50/17 erref.: JGL eta FRM.-** Jakinaraztea udalaren futbol-zelaiko jarduera amaitu behar duela.
- **51/17 erref.: Centro Innovación en Política Social- GIZALABA FUNDAZIOA.-** Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan salbuespena ematea, eta 2014, 2015 eta 2016 ekitaldietan ordaindutako zenbatekoak itzultzea.

- **52/17 erref.: EUSKARAZ KOOPERATIVA ELKARTEA-AEK.-** "Berbalagun-Gurasolagun" programaren dinamizazio-zerbitzuaren kontratua esleitzea.
- **53/17 erref.: BRA.-** Arespalditzan janari-denda irekitzeko jarduera-lizentzia bajan ematea, denda itxi delako.
- **54/17 erref.: BRA.-** Bermea eskatzea, "Arespalditzako eraikina birgaitzeko" obren hondakinen kudeaketa bermatzeko.
- **55/17 erref.-** Kreditu-gaikuntzari buruzko 1/2017 espedientea.
- **56/17 erref.: CONSTRUCCIONES MENOYO GOCHI SL-** Obrarako kontratua esleitzea, Luiaondoko 3. poligonoko 1333 lursailean erabilera publikoko jarduerak egiteko.
- **57/17 erref.: BRA.-** Udal-lizentzia eta obrak hasteko baimena ematea "Arespalditzako eraikina birgaitzeko" (3. poligonoko 246 lursaila), merkataritza-erabileratik (janari-denda), bizitegi-erabilera izatera pasatzeko.
- **58/17 erref.: JDL.-** Obretarako udal-lizentzia ematea Luiaondon dagoen etxebizitzako leihoak aldatzeko.
- **59/17 erref.-** Kreditu-gaikuntzari buruzko 2/2017 espedientea.
- **60/17 erref.: Etxola birgaitzeko obraren 2. ziurtagiria onestea,** Luiaondon botika-kutxa jartzeko.
- **61/17 erref.-** Onestea F/2017/1 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.
- **62/17 erref.: MME.-** Hobaria ematea Ibilgailuen gaineko Udal Zergan, familia ugarikoa izatea egiaztatzeagatik.
- **63/17 erref.: Hermandad de Servicios Ibaizabal.-** Diru-laguntza murriztea, 2016an ur-deposituak kloratzeko gastua finantzatzeko.
- **64/17 erref.: Llanteno Administrazio Batza.-** 2016an ur-deposituak kloratzeko gastua finantzatzeko diru-laguntza bertan behera uztea.
- **65/17 erref.: GOT.-** Hirigintza-espedientearen ebazpena, kaltetutako hirigintza antolaketa berrezartzeari buruzkoa. Kalteak Arespalditzako lursail batean lurra eta betegarriak mugitzeagatik gertatu ziren.
- **66/17 erref.: JPDB.- Zandesa.-** 448/16 Dekretuaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa ez onartzea, garaiz kanpo jarri zelako, eta 527/16 Dekretuaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa baztertzea.

- Josu jaunak (BILDU) 16/17 Dekretuari buruz galdetu du; zehazki, ea zer esan nahi duen.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Davidek ikuskapen-bisita bat egin zuela obra hartu eta urtebete bete aurretik, eta huts txiki batzuk hauteman zituenez, eskatu zaie horiek zuzen ditzaten fidantzaren itzulketa eskatu aurretik; huts batzuk zuzendu dituzte jada.

- Josu jaunak (BILDU) 38, 44 eta 65/17 Dekretuengatik galdetu du.

Idazkariak azaldu du salaketa batengatik abiarazitako lur-mugimenduengatik hirigintzako espediente baten izapidetzean salatuak salaketa ikusteko eskaera egin duela. Gardentasuneko eta informazio publikorako sarbideko Legearen arauketa berriarekin, prozedura bat izapidetu behar da informazio publikorako sarbidearen auzirako; hortaz, eskaera guztiak ebatzi behar dira. Kasu honetan, ukatu egin zitzaion salaketa ikustea, ez baitzion informazio osagarririk ematen helarazi zitzaion txosten teknikoan adierazten zenarekiko. Horrenbestez, salatzailearen intimitatea babesteko

xedearekin eta beharrezkoak ez diren gatazkak saiheste aldera, eskatutako informaziorako sarbidea ukatu zaio.

- Josu jaunak (BILDU) 51/17 Dekretuagatik galdetu du.

Idazkariak erantzun du irabazi asmorik gabeko erakunde bat dela. Printzipioz Aldunditik salbuesten dituzte erroldak egiterakoan, baina kasu honetan ez da hala izan, eta salbuespena eskatu dute; araudiarekin bat etorritz zerga hori ordaintzetik salbuetsita daude; hortaz, behar ez bezala kobratutako zenbatekoak itzuli behar zaizkie.

- Josu jaunak (BILDU) 63 eta 64/17 Dekretuengatik galdetu du.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du batzordeetarako ateratako diru-laguntzen deialdian, klorazio-instalazioak mantentzeko gasturako, behin justifikazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Llanteno Administrazio Batzordeak idatzi bat aurkeztu zuela, diru-laguntzari uko egiteko. Era berean, Ibaizabal Ermandadea osatzen duten batzordeek gastuen justifikazioa aurkeztu zuten, esleitu zitzaiena baino zenbateko txikiagoan; hortaz, bidezkoa da emandako diru-laguntza gutxitzea.

- Josu jaunak (BILDU) 66/17 Dekretuagatik galdetu du.

Gentza jaunak erantzun du Garavillako lur-mugimenduei buruzko espedientea dela. Jarritako berrezartzeko errekurtoa bideratu da eta espedienteak aurrera jarraitzen du.

12.- Galderak eta eskeak.

Iratxe andreak (AB) eskatu du Kirolgest enpresari (ikastaroak kudeatzen dituen enpresa) txosten bat eskatzeko, zumbako irakasleak ikastaro hori emateko titulua duen egiaztatze aldera. Halaber, bilera bat eskatu du, Kantauriko Urkidetzan Aiararen ordezkagarritasuna udalerrri gisa lantzeko.

Eta jorratzeko beste gairik ez dagoenez, alkate-udalburuak amaitutzat eman du bilkura, hemeretziak eta berrogeita bost minutu direla, eta jorratutakoa eta hartutako erabakiak jasota geratzeko, nik, idazkari gisa, fede eman dut, Arespalditzan, bi mila eta hamazazpiko otsailaren hogeita hiruan.

OE
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta.

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.